

Donostia, 2015eko uztailaren 17a

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

MOZIOA, DONOSTIAKO UDALA EZ-KONFESIONALA IZATEA DELA ETA

Amaia Martin Garinek, Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkezten du, udal jardueretan laizismoa bultzatzearen alde, UDALBATZAN azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Irabazi Donostiaren ustez, laizismoak berekin dakar baldintza politiko, juridiko eta sozial batzuk izatea, kontzientzia askatasuna bere agerpen guztietan osoki eta berdintasunez erabiltzeko eskubidea berma dadin. Erakundeek beharrezko bitartekoak jarri behar dituzte hori hala izan dadin; hala, botere publikoen eta erlijioen arteko bereizketa argia izango da eta ez da nahasbiderik izango helburu erlijioso eta zibilen artean.

Hala ere, Euskadin ohikoa da kargudun publikoak ekitaldi erlijiosoetan parte hartzen ikustea, hautatuak izan diren erakunde publikoen ordezkari gisa, bai eta sinesmen erlijioso pertsonalen arabera formulen bidez egitea ere karguen zina edo promesa. Gizartean, ordea, aniztasun handia dago kontzientzia askatasunari dagokionez.

Hori dela eta, hauxe da gure



MOZIOA

- 1.- Donostiako Udalbatzak hitzematzen du berak antolatutako ekitaldi publiko ofizialak zibilak eta konnotazio erlijiosorik gabeak izango direla soilik.
- 2.- Donostiako Udalbatzak hitzematzen du udalkideek ez dutela ekitaldi erlijiosoetan parte hartuko beren kargua betetzen ari direnean.
- 3.- Donostiako Udalbatzako kideek hitzematzen dute beren kargua edo eginkizunak betetzean ez dutela egingo pertsona edo irudi erlijiosoak gurtzeko edo haiekiko mendetasuna adierazteko keinurik (hala nola belaunikatzea, eraztunei muin egitea eta abar).
- 4.- Donostiako Udalbatzak hitzematzen du egokitu egingo dituela Udalaren eta haren erakunde publikoen ohore eta protokolei buruzko udal araudiak, konfesio bateko zein besteko ordezkari eklesiastikoak ez daitezen ekitaldi publikoetara gonbidatu edo ez daitezen agintari publikotzat hartu.

Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.